

Kaixo familia,

Eskuetan duzun karta jolas hau **Lezo Herri Eskolako Euskara Talaiako** partaide guztion (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) elkarlanaren emaitza da. Maitasun eta mimoz eginga, euskararen erabileran eragiteko asmoz sortua. Lezoko pertsonaia kuttunak agertzen diren memoria eta estrategia jolas dibertigarri hau, tresna paregabea duzu familian edota lagunartean euskaraz jolastu eta gozatzeko.

ARGIBIDEAK:

KARTETAN ARITZEKO BI MODU:

1. **Bikote-jolaser**a jolasteko karta guztiak buruz behera jarri behar dira. Lehen jokalaria bi karta hartuko ditu. Bi karta horiek berdinak badira, bikotea osatuko du eta berarentzat izango dira. Ondoren berak jarraituko du jolasten, beste bi karta hartuz. Bestalde, hartu dituen bi kartak desberdinak badira, berriro zeuden lekuan ipiniko ditu, buruz behera, eta hurrengo jokariaren txanda izango da. Bikote gehien lortzen dituen jokalaria irabaziko du jokaldia.
2. **Azkenak Pottera** jolasteko *Lezo* karta bat kendu behar da eta gainontzekoak jolaskide artean banatzen dira. Eskuan ditugun kartekin bikoteak osatuz gero, mahai gainean utziko ditugu eta bakarka ditugunak eskuetan mantendu. Bakoitzak bere txandan ezkerreko jolaskideari karta bat hartuko dio. Karta honekin bikotea egiten badu, mahaian utziko du eta bestela eskuan mantenduko du, hurrengoak hartu ahal izateko. Bukaeran eskuetan *Lezo* kartarekin geratzen den jokalaria galduko du jokaldia.


Jolasteko beste hainbat modu ere badaude, erabili irudimena eta izan sortzaile, zerorrek asmatu!

HIZTEGIA: kartetan euskaraz aritzeko, lagungarri izango zaizulakoan:


Hitzak:

Buruhandia	Erraldoia	Pailazoa	Sorgina
Aguazila	Epailea	Bai	Ez
Bat	Bi	Hiru	Lau
Bost	Sei	Zazpi	Zortzi
Hamar	Hamaika	Hamabi	Hamahiru
Hamalau	Hamabost	Hamasei	Hamazazpi
Hemezortzi	Hemeretzi	Hogei	


Bikote jolaserako, euskarazko esaldi labur eta errazak:



Jokua bukatzean...



? **Azkena Pottera jolasteko, euskarazko esaldi labur eta errazak:**



Jokua bukatzean...

“Ni geratu naiz *Lezo* kartarekin. Nik galdu dut!”

Jolasa gustukoa eta erabilgarria izango duzuelakoan, jaso gure besarkadarik beroena.

Gora Lezo! Gora Euskara!

